

NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNA ESKATZEKO/PRESTATZEKO FAQs

Dokumentu hau, zure kabuz eskaria eta hitzarmen akademikoaren zirriborroa prestatzeko idatzita dago. Zirriborroaren emaitza ikusita, elkartrukea eskatzea bideragarria den erabaki dezakezu. IRAKURRI HARRETAZ UPV/EHUko ARAUDIA MUGIKORTASUN-PROGRAMETARAKO; UPV/EHUko NH BULEGOAK ARGITARATUTAKO DEIALDIA ETA ZTF-FCTko PROZEDURA.

Behin-betiko hitzarmen akademikoa plazak emandakoan egiten da. Fakultateko koordinatzailea izango da hitzarmen akademikoa nola egin behar den zehatz-mehatz argitzeko aurkezpena egingo duena.

OSO GARRANTZITSUA

Eskaera egin aurretik, **ziurtatu zaitez ezagutzen duzun hizkuntzan irakasgaien eskaintza nahikoa dagoela helmugako unibertsitatean**. Zeuk ikertu beharko duzu ikasketa-planei buruz edo irakaskuntza-kargari buruz helmugako unibertsitateko web-orriak aztertuz edo iraganean elkartrukean egon diren ikasleei galdetuz.

Informazio zehatzagoa:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/programas-intercambio-alumnado>

ZEINTZU DIRA NAZIOARTEKO ELKARTRUKE PROGRAMAK?

GAUREn daukazue ikusgai. Laburtuz, hauek dira:

- Erasmus+
- Latinoamerika
- Beste helmugak (EEBB, Kanada, Hego Korea, TASSEP programa, e.a.)

Horietaz gain, badaude urtean zehar beste deialdi batzuk, CONAHEC eta BCI. Beraien eskaria deialdi espezifikoetan egiten da. Informatu zaitez.

Nazioarteko praktiken programak UPV/EHU Enplegu bulegoan kudeatzen dira. Bertako web orria kontsultatu deialdien, epeen eta betebeharren berri izateko.

ZEIN DA EGONALDIAREN IRAUPENA ETA GUTXIENKO KREDITUAK?

Ondo justifikatutako salbuespenik ez badago, Hitzarmen Akademikoak gutxieneko kreditu kopuru hau izango du:

- lauhilabeteko bat: 30 kreditu
- ikasturte osoa: 60 kreditu

ZEINTZU HIZKUNTZA MAILA ZIURTAGIRIAK ONARTZEN DIRA?

soilik hizkuntza ziurtagiri edo titulu ofizialak onartzen dira. Akademien edo zure aurreko ikastetxeko eskutitza edo dokumenturik ez dira onargarriak. Eskaera-epea amaitu baino lehenagokoa izan behar du ziurtagiriaren lorpen-datak.

NAZIOARTEKO PLAZA BAT EMAN DIDATE, NIRE 1º AUKERA, BAINA NAHIAGO DUT NIRE 2º AUKERA JARRI NUENA. POSIBLE DUT ALDAKETA ESKATZEA?

EZ. Eskarian aurkezten duzun helmugen ordena loteslea da eta eskuratuko plazaren azpitik jarritakoak galtzen dituzu.

NIRE 4. AUKERA EMAN DIDATE ESLEIPEN PROZESUAN. UKO EGITEN BADUT AUKERAK GALTZEN DITUT BIGARREN TXANDAN NIRE LEHENTASUNEZKO AUKEREI?

EZ. Esleitu zaizun plaza Onartu ala Uko egiten baduzu ezarritako epearen barruan, bigarren txandan aukerak izan ditzakezu zure lehentasunezko plazaren bat libre geratzekotan. Aldiz, ez baduzu esleitutako plazari erantzuten adierazten zaizun epearen barruan, mugikortasun programetatik kanporatua izango zara eta plaza gabe geratuko zara.

INTERESATZEN ZAIDAN HELMUGAK URTE OSOKO PLAZAK BAKARRIK DITU. LAUHILABETE BATERAKO MURRIZKETA ESKATU DEZAKET?

EZ, lehentasunez. Egonaldiak murrizteko plaza onartu eta gero egingo dira eta behar bezala justifikatu beharko da, beti ere ustekabeko edo bat-bateko arrazoiengatik izan dela. GrALak hemen egin nahi izatea ez da arrazoi onargarria.

ESKARIA OSATU ETA BIDALI DUT, BAINA JARRITAKO HELMUGEN ZERRENDAN AKATS BAT AURKITU DUT. ZER EGIN DEZAKET?

Eskaria egiteko epea amaitu aurretik, SAECYT kontaktatu eta aurkitu duzun akatsa zehaztu. Esleipen prozesua hastean ez dira aldaketarik onartuko.

HITZARMENEAN SARTU DITZAKET EZ GAINDITUTAKO IRAKASGAIK ETA JADA GAINDITUTAKO IRAKASGAIK?

- EZ, akordioan ezin dituzu sartu ez gaindituta kalifikazioa duen irakasgairik ezta jada gaindituta dituzun irakasgairik. Bai aldiz, inoiz aurkeztu ez zaren irakasgaiak.
- aurreko ikasturteetako ez gainditutako eta ez aurkeztutako derrigorrezko irakasgaiak matrikulatu beharko dituzu. Salbuespen bakarra da lehenengo aldiz matrikulatzen dituzun derrigorrezko irakasgaiak eta kanpoan egiteko asmoa/aukera ez duzunez, matrikulatik kentzeko eskaria egin dezakezu.
- suspenditutako irakasgaiak distantzian egin beharko dituzu eta irakasle taldearekin adostu beharko duzu nola egin eta aukerarik ote dagoen. Mugikortasunean parte hartzeak ez du salbuespenik eskaintzen beste edozein ikaslek dituen baldintzekin.
- BALORATU GAINDITU GABEKO IRAKASGAIEN KARGA HANDIA MUGIKORTASUN AKADEMIKOAN PARTE HARTZEKO BENETAKO AUKERA DEN EDO ZURE MUGIKORTASUNA BESTE URTE AKADEMIKO BATERA ATZERATU BEHAR DUZUN.

ZEIN IZAN BEHAR DA MUGIKORTASUNEAN EGINGO DITUDAN IRAKASGAIEN EDUKIAK ETA KREDITUAK?

UPV/EHUn derrigorrezko irakasgaiak:

- helmugako unibertsitateko irakasgaia eta UPV/EHUkoa %75-80an berdinak izan behar dira.
- helmugako unibertsitateko irakasgaiak eta UPV/EHUkoak antzeko kreditu kopurua eduki behar dute.
- helmugako unibertsitateko irakasgaia derrigorrezkoa zein hautazkoa izan daiteke.

UPV/EHUn hautazko irakasgaiak:

- edukiaren aldetik malgutasuna dago, beti ere zure Graduak ezagupen arlokoa izanik.
- helmugako unibertsitateko irakasgaiak eta UPV/EHUkoak antzeko kreditu kopurua eduki behar dute.
- helmugako unibertsitateko irakasgaia derrigorrezkoa zein hautazkoa izan daiteke.
- kreditu-kopurua doitzeko komodin bezala erabil daitezke. Adibidea: UPV/EHUn derrigorrezkoa den 6 ECTSko irakasgai bat akordioan eraman nahi duzu eta

helmugako unibertsitatean, edukien aldetik antzekoena denak, 10 ECTS ditu. Akordioa honakoa izan daiteke: UPV/EHUko 2 irakasgai (derrigorrezkoa 6 ECTS + hautazkoa 4,5 ECTS) helmugako unibertsitateko irakasgai baten truke (10 ECTS).

UPV/EHUn urte osoko irakasgaiak:

Helmugako unibertsitate gehienetan, irakasgaiak lau hilabetekoak izaten dira. UPV/EHUn urte osokoa den irakasgai bat akordioan eraman nahi baduzu:

- helmugako unibertsitateko bi irakasgai har ditzakezu, beti ere haien edukien eta kreditu kopuruen eskakizunak betetzen badira arestian aipatu bezala.

UPV/EHUko esperimentazio irakasgaiak (laborategiko praktikak):

Unibertsitate gehienetan ez dago laborategiko praktika izeneko irakasgai eskusiborik. Laborategiko praktikak irakasgai ezberdinetan sartuta daude. Ezin dituzu praktikak irakasgaitik bereizi.

- hitzarmenean UPV/EHUko irakasgai esperimental bat sartu nahi baduzu, ziurtatu zaitez ez dituzula praktikak irakasgai osoetatik bereizten helmuga unibertsitatean.

KURTZO ETA TITULAZIO BEREKO IRAKASGAIK HARTU BEHAR DIRA?

- helmugako unibertsitateko irakasgaiak ez du zertan bat etorri behar ez mailan, ez Graduak, UPV/EHUkoarekin. Adibidea: UPV/EHUn bigarren mailako irakasgai bat, helmugako unibertsitateak bigarren, hirugarren edo laugarren mailan, edo beste titulazio batean eskaini dezake.
- Europako hainbat Graduak 3 urtekoak direnez, elkartrukean eraman nahi duzun irakasaia Masterrean eskaini daiteke, eta hitzarmenean sar dezakezu. Kasu horretan, kanpoko unibertsitateko oniritzia beharko duzu.

SARTU AHAL DITUT HIZKUNTZEN KURTZOAK HITZARMEN AKADEMIKOAN?

- EZ, hizkuntzen kurtsoak ezin dituzu hitzarmenean eraman.
- Euskarazko Ahozko zein Idatzizko Komunikazioa ikasgaiak ezin dira elkartruke hitzarmenetan sartu.

GrAL ETA PRAKTIKAK ENPRESAN (KURRIKULARRAK) MUGIKORTASUNEAN EGIN AHAL DITUT?

- BAI, GrALa helmugako unibertsitatean egin dezakezu. Informa zaitez helmugako unibertsitateko koordinatzailearekin kontaktuan jarritz.
- helmugako unibertsitatean egindako GrALaren defentsa helmugako unibertsitatean (hobetsia) zein UPV/EHUn burutu dezakezu (kontuan hartu baldintzak eta egutegiak).
- praktikak enpresan (kurrikularrak) helmugako unibertsitatean egin ditzakezu. Informa zaitez helmugako unibertsitateko koordinatzailearekin kontaktuan jarritz.
- praktikak enpresan (kurrikularrak) helmugako unibertsitatean egiteko aukera bat helmugako unibertsitateko ikerkuntza laborategi baten lan egitea da. Informa zaitez helmugako unibertsitateko koordinatzailearekin kontaktuan jarritz.